



BIOGRAFIA. XX. mendeko eskulturaren sortzaile handienetako eta euskal artearen ikur nagusietako bat izan da

Eduardo Txillida hil da

Artistaren gorpua Donostian erraustu ondoren, Txillida-Lekura eramango dituzte haren errautsak gaur eguerdian

KRONOLOGIA

1924. Urtarrilaren 10ean jaio zen, Donostian.

1947. Arkitekturako ikasketak utzi, eta marrazteari ekin zion Madrilen.

1948. Parisa joan eta lehen obrak egin zituen.

1950. Pilar Belzunzerekin ezkondu zen.

1951. *Illarik* burdinazko lehen obra egin zuen.

1954. Lehen erakusketa indibiduala egin zuen, Madrilgo Clan galerian, eta Arantzazuko Basilikako burdinazko lau ateak egin zituen.

1956. Lehen erakusketa indibiduala Parisko Maeght galerian.

1958. Veneziako Biurtekoaren Nazioarteko Eskultura Saria irabazi zuen.

1969. Martin Heidegger-ek *Die Kunst und der Raum* (Arte eta espazioa) liburua ilustratzeko eskatu zion Txillidari. Unescok *Haizearen Orrazia IV* jarri zuen Parisko egoitzan.

1977. *Haizeen Orrazia* eraiki zuen Donostian.

1982. Gasteizko Foruen Plaza eraiki zuen, Luis Peña Gantxegi arkitektoarekin.

1984. Parisko Arte eta Letretako Sari Handia eman zioten. Hernaniko Zabalaga baserria erosi zuen.

1987. Arteetako Asturiasko Printzea saria.

1988. *Gure aitaren etxea* jarri zuen Gernikan.

1989. Bonnen eta Munsterren Txillidaren atzera begirakoak eratu zituzten.

1990. Veneziako Biurtekoaren omenaldia egin zioten. Txillidari buruzko sinposioa EHUren udako ikastaroetan.


1994. Kanariar Uharteetako Gobernuak Tindaya mendirako egitasmoari baiezkua eman zion.

1997. Euskal Herriko Unibertsitateko *honoris causa* dokto-re izendatu zuten.

1998. Txillidaren erakusketa antologikoa zabaldu zuen Madrilgo Reina Sofiak.

1999. Inoiz egin den artista-lanen atzera begirako erakusketa zabalena egin zuten Bilboko Guggenheim museoan.

2000. Artistaren lanak biltzen dituen Txillida-Leku museo zabaldu zuten, Hernaniko Zabalaga baserrian.



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

XX. MENDEKO ARTISTA HANDIENETAKO BAT. XX. mendeko arte garaikideak eman duen pertsonaiarik garrantzitsuenetako bat da Eduardo Txillida, Donostian 1924an sortua eta hiri berean atzo hila.

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Eduardo Txillida donostiar eskultore ezaguna atzo hil zen, arratsaldeko seiak aldean, Donostiako bere etxean, eta Zorroagako tanatorioan erraustuko dute haren gorpua gaur, 12:30etan. Errautsak Hernanira, Txillida-Lekura, eramango dituzte ondoren. Asteazkenean, 19:30etan, hileta elizkizunak egingo dira Donostiako Alde Zaharreko Santa Maria elizan.

Alzheimer gaitza zuen Txillidak, eta iragan martxoan Donostiako Poliklinikan ingresatzera behar izan zuten pneumonia baten ondorioz. Orduko hartan artistaren osasun egoera oso kezagarria izatera heldu zen, baina artistak, medikuen aurrikuspeneak gaindituz, senda-agiria eskuratu zuen. Gaitzak, ordea, ez zuen sendabiderik, eta ezin

saihestuzkoa zen gainbehera. «Azken egunotan gero eta itzaliago zegoen», azaldu zuen atzo artista zendu berriaren suhi eta laguntzaile Gonzalo Calderonek.

Eduardo Txillida Juantegi, Pedro Txillida militarren eta Carmen Juantegi sopranoaren hirugarren semea, 1924ko urtarrilaren 10ean jaio zen, Donostian. Donostiako Marianistetan egin zituen ikasketak, eta 1936an hiru hilabete eman zituen Frantzian, gurasoen adiskide batzuen etxean, frantsesa ikasten.

Arkitektura ikasketak hasi zituen 1943an, Madrilen. Garai hartan Real Sociedad futbol taldeko atezaina zen. Estimazio handia zuen atezain gisa, baina lesio larri batek zeregina uztera behartu zuen.

1947an, arkitektura ikasketak alde batera utzita, Madrilgo Arte

Ederretako Zirkuluan marrazkiak egiten hasi zen. Marrazkiak eskuineko eskuaz etenik gabe eta erraztasun egiten zituenez, ezkerrez marrazten hasi zen garai hartan Txillida, mantoago marraztuz «sentiberatasunari behar zen denbora eta ordenak emateko».

1948an Parisa joan zen eta Louvreko greziar eskultura zaharrek liluratu zuten. Pablo Palazuelo margolariaren adiskide egin zen, eta igeltsuzko eskulturak egiteari ekin zion. 1949an Parisko Salon de Mai aretoan erakusketa bat egin zuen, Palazuelorekin batera.

Hurrengo urtean Pilar Belzunzerekin ezkondu zen, Donostian. Vellennes-sous-Bois hirian hartu zuten bizilekua, Frantziako Seine-et-Oise eskualdean. Hainbat eskultura erakutsi zituen Frantzian. Gorputz forma estili-

zatuak lantzen zituen garai hartan.

Illarramendiren Hernaniko sutegia, eragin garrantzitsua

1951n, lehen semea jaio ondoren, familiarekin Donostiara itzuli zen. Etsia zegoen orduan Txillida eskulturarekin, berak nahi eta behar zuen bidea ezin aurkitu zuela iritzita. Eskultura uzteko erabakia hartzerarekin heldu zen, baina emazteak emandako adorea jarraitzea bultzatu zuen.

Manuel Illarramendiren sutegian lan egiten hasi zen, Hernanin, eta burdina lantzeko modu tradizionala gertutik ezagutzeak eragin handia izan zuen Txillidarengan, Frantzian ezin aurkitu zuen bidea Euskal Herrian aurkitzen lagundu baitzion. Illarramendiren sutegian sortu zuen *Illarik*, burdinazko lehen eskultura. 1953an, berriz, *Haizeen Orrazia* sortu zuen.

Arantzazuko basilikako burdinazko lau ateak egin zituen 1954an, eta urte berean egin zuen bakarkako lehen erakusketa, Madrilgo Clan galerian. Sor-kuntzako aro oparo eta arrakastatsua izan zen hura Txillidarentzat: Ohorezko Diploma eman zioten, 1954an, Milango Hirurtekoan; Bernan erakusketa egin zuen 1955ean; Parisko Maeght galerian 1956an; Nazioarteko Eskultura Saria eman zioten, 1958an, Veneziako Biurtekoan; AEBetarako lehen bidaia egin zuen urte berean, eta, besteak beste, New Yorkeko Guggenheim museoan ere erakutsi zituen burdinazko lanak; 1959an, Kasselgo Dokumentan izandako parte-hartzeak Alemaniako arte modernoaren munduko ateak zabaldu zizkion; 1960an, Kandiniski saria eman zioten.

60ko hamarkadan ere etenik gabe gora egiten jarraitu zuen Txillidaren ospeak: 1961ean, obra banaren trukea eskaini zion Georges Braque margolari ospetsuak; Picasso eta Mirorekin batera erakutsi zituzten Txillidaren lanak, 1962an, Houstonen; *Poésie dans l'espace de Eduardo Chillida* erakusketa eratu zuen Maeght galeriak 1964an; Wilhelm Lehmbruck saria eman zioten, Duisburgen, 1966an; 1969an, *Haizearen Orrazia IV* eskultura inauguratu zuten Unescoren Parisko egoitzaren atariran, eta urte berean Martin Heideggeren *Die Kunst und der Raum* liburua ilustratu zuen, filosofoak berak eskatuta.